

## Gai monografikoa. Jardun biko eredua

102. zenb.

XLI. URTEA  
2023 UZTAILA-ABENDUA

ISSN 2530-3287

**Alicia  
Eizaguirre  
Santillán**

**Diana  
Pastoriza  
Espasandín**

CAFI (Centro Autónomo de  
Formación e Innovación)

[cafi.internacional@edu.xunta.gal](mailto:cafi.internacional@edu.xunta.gal)

# SBLENDID proiektua. Jardun biko praktikakomunitate baten oinarri

Erasmus+ KA104 SBLENDID partzuergo jardun biko irakaskuntzaren inguruan Galiziako hamar Hizkuntza Eskola Ofizialen eta CAFI (Centro Autónomo de Formación e Innovación) erakundearen arteko lankidetzaren emaitza da. Bi urtez koordinatu den lanari esker, irakasleentzako berariatzko prestakuntza eskaini da (hala nola web-mintegiak, online ikastaroak eta atzerrian egindako behaketak); halaber, baliabide-sorta bat eta eredu horretarako prestakuntza-ibilbide bat gauzatu dira. Artikulu honetan, proiektua nola garatu den azaltzeaz gain, emaitzak –adibidez, diseinatutako baliabideak–, ondorioak eta proposamenak aurkeztuko dira.

### Gako-hitzak

b-learning, Erasmus+, eredu erdipresentziala, jardun biko, lankidetzakomunitatea, Sblendid

## 1. SARRERA

Erasmus+ KA104 SBLENDID proiektuak partzuergo batean batu ditu Galiziako Xuntako CAFI erakundea (Centro Autónomo de Formación e Innovación) eta erkidego hartako hamar Hizkuntza Eskola Ofizial (HEO). Honako hau da SBLENDID-en esanahia: “escuelas que usan el aprendizaje mixto para dialogar sobre pedagogías interrelacionadas” (elkarraren artean lotutako pedagogiei buruz hitz egiteko ikaskuntza mistoa erabiltzen duten eskolak). 2020ko urrian jarri zen martxan, Galizian *blended learning* (b-learning, jardun biko irakaskuntza, hibridoa, mistoa edo erdipresentziala) gaiari buruz zegoen prestakuntza-beharra asetzeko; izan ere, ikasturte hartan (2020-21) eredu horren ekimen pilotuak jarri ziren abian autonomia-erkidego horretako lau HEOetan.

## 2. HELBURUA

Irakaskuntza-esperientzian etengabeko hobekuntza oinarri izatea izan da lankidetzan egindako proiektu honen xedea, Rickards et al.-i jarraikiz (2021). Hobekuntza HEOen erronka nagusietako bitara bideratu da:

- i. Eskola-uztea murriz dadin lortzea.
- ii. Aniztasunari arreta eraginkorra ematea, HEOetako heterogeneotasun-maila nabarmena kontuan hartuta.

Erronka horiei erantzuteko, jardun biko eredua modu irmo eta protokolizatuan sartu eta hedatu du SBLENDID proiektuak.

Proiektua sortu zenetik taldean egitea planteatu da, zuzendaritza-taldeek, HEOko irakasleek eta CAFIko aholkulariek osatutako praktika-komunitate batean, hain zuzen. Helburu nagusia honako hau izan da: irakats-praktikak estandariza daitezen bermatzea, bai jardun biko ikastaroak sortzeko diseinu tekniko-pedagogikoari dagokionez, bai ikastaro horien tutorizazio eta laguntzari dagokionez.

Europa mailako proiektu bat izan denez, eraginik handiena lortzea izan da xedea, bai eta produktuak zein ikuspegia Estatuko beste HEO batzuetan, helduentzako ikastetxeetan eta bigarren hezkuntzan (Batxilergoa) aplikatu ahal izatea ere.

### 3. METODOLOGIA

Hasteko, parte hartu duten HEOetako laurogeita hiru irakasleri batera prestatzea eskaini zitzaien mintegi batean.. Bi fase izan ziren, eta horietako bakoitzean bi maila izan ziren.

#### 3.1. IKASKUNTZA-FASEA

Taldea batera prestatu zen. Halaber, fase honetan bi atal egin ziren aldi berean, 2020ko urritik 2021eko maiatza bitartean.

- Parte-hartzaile guztientzako (laurogeita hiru). Jardun biko irakaskuntzan eza-gutza zabala zuten beste autonomia-erkidego batzuetako irakasleek emandako web-mintegiak eta mahai-inguru bat bukaeran; azken honetan, Galiziako eredu horretako irakasleek eta proiektuan gauzatutako ikastaroen sortzaileek hartu zuten parte.
- Espezifikoa (hemezortzi parte-hartzaile). Europa-mailan ospea duten erakundeek emandako bi prestakuntza-ikastaro, aurrez aurreko edukiak eta online lana integratzera bideratuta. Lehendabizikoa Britainia Handiko NILEk eman zuen, jardun bikoan edo urrutiko irakaskuntzan esperientzia zuten irakasleentzat; bigarrena, berriz, Italiako Europass Teacher Academy-k, eredu erdipresentzialean esperientziarik gabeko irakasleentzat. Bi ikastaroak gure beharren arabera egokitu eta pertsonalizatu ziren, eta, hortaz, oso eraginkorrak izan ziren.

Ikasitakoa talde handiari helarazteko, kateko prestakuntza antolatu zen hedapen-saio irekien bidez, halaber, materialak eta azalpen-baliabideak sortu ziren: iritziak jasotzeko arbel interaktiboak, edukiak eta atazen edo estrategien adibideak, ikasitakoari lotutako hausnarketako eta elkarrizketa profesionaleko bideoak; txostenak, etab.

Diseinu-prozesuak egiteko gakoak eman ziren izaera holistikoko prestakuntza honen bidez, parte-hartzaileen jardura esplizituagoa eta kalitate hobekoa izan zedin, horrela ikasteko espazio eta esku-hartze eraginkorrak garatu ahal izateko (Conole, 2012). Aldi berean, izaera espezifikogoko beste gai batzuk jorratzea sustatu zen, hala nola:

- Zein estrategia edo ikuspegi erabil dezaket ikasleak motibatuzko bai aurrez aurreko saio sinkronoetan bai Ikaskuntzako Ingurune Birtualean?
- Irakaskuntzaren zein alderdi egokitzen dira ikaskuntza sinkronora? Eta asinkronora?
- Nola eskainiko dut aldamiatzea ikasleak gal ez daitezen?
- Nola eman dezaket feedbacka?
- Nola monitorizatu ditzaket ikasleak?

#### 3.2. ELKARRIZKETA- ETA SORMEN-FASEA

Prestakuntza jaso ondoren, ikasitakoa helarazteko baliabide-sorta bat eta irakasleen prestakuntzarako ibilbide bat diseinatu ziren. 20 orduko lau ikastarok osatzen dute ibilbidea eta erabat online egin daitezke. Aurkezpen-bidea ikusgai dago (CAFI Galicia, 2021).

Lau ikastaro horiek ikastaro aurreratuan parte hartu zuten bederatzi irakaslek eta aholkularik diseinatu zituzten. 2021/2022 eta 2022/2023 ikasturteetan eskaini ziren, Galiziako, Murtziako, Nafarroako, Madrileko, Aragoiko eta Euskadiko irakasleen prestakuntzarako urteko planetan. Litekeena da etorkizun hurbilean Gaztela eta Leonen, Valentziako Erkidegoan eta Andaluzian ere sartzea, aldaketa batzuekin. Halaber, gainerako autonomia-erkidegoekin partekatu zen materiala, azalpen-txosten batekin; jasotzeke daude balorazioak. Ibilbideko ikastaroak ematen hasi zirenean, Moodle plataformako tresna espezifikoa (H5P zehazki) erabili behar zirela sumatu zen; hortaz, horretarako materiala prestatu zen, e-Hizpideko zenbaki honetan Susana Aldao eta Nuria Calvoren beste artikuluko batean ikusiko den legez.

Aldi berean, HEOetako gainerako irakasleak (hirurogei) talde txikietan bildu ziren, prestakuntza-ibilbidea osatzeko gehitu ahal izango zen baliabide-sorta bat sortzeko, zehazki:

- jardun biko eredu behatzeko errubrika;
- jardun biko irakaslearen dekalogoak;
- laguntza-protokoloak;
- eredu horretan berria den irakasle batentzako baliabide- eta tresna-bilduma;
- eskola-eredua;
- irakaskuntza-kontratua eta ikasleentzako aholkuak;
- ikastaroen bideo-aurkezpena;
- prestakuntza-ibilbide osoaren aurkezpena eta ibilbide-orria;
- baliabide guztien podcast-aurkezpena.

Baliabide hauetako batzuk aldizkariaren zenbaki honetan aurkeztuko dira.

#### 4. EMAITZAK ETA ONDORIOAK

Irakasleen lanaren mugak aspaldi hedatu eta zabaldu dira; zehaztasuna ere galdu egin da. Urrutiko irakaskuntzan eta jardun biko irakaskuntzan (edo *blended* delakoan) agerikoagoa izan da aldaketa hori azken urteotan. Larrialdiko urrutiko irakaskuntzaren ondoren, orduan ikasitako kontu batzuk eta urrutiko irakaskuntzari lotutako beste alderdi batzuk sartu ditugu gure irakas-jardueran eta irakaskuntza-ingurune birtualetan. Lagungarria izan da ondorioa; izan ere, indarrean jarritako praktikek ikas-irakas zikloetan teknologia sartzearen inguruko eztabaida piztu dute berriz.

Horixe gertatu da SBLENDID proiektuaren kasuan; besteak beste, luze hitz egin da “argitasuna” bezalako kontzeptuez. Fendick-ek (1990) definitu duen bezala, hurrengoan antolaketa egituratua da “argitasuna”: irakaskuntzarena, edukien azalpen garden eta mailakatuarena, adibide lagungarriena, gidatutako praktikarena eta ikaskuntzaren ebaluazioarena. Irakurketen bidezko ikerketaren eta elkarrizketa profesional horren ondoriozko adostasuna dago sortutako prestakuntza-ibilbidearen eta baliabideen oinarrian.

Produktu zehatz hauekin batera, proiektuaren bigarren urtean, 2021-2022an alegia, Europako beste herrialde batzuetako erakundeetan (Italia, Portugal eta Austriakoetan, hain zuzen) irakasleen arteko behaketak egin ziren. Hauxe da honelako behaketaren xedea: irakaslea bere klasean gertatzen denaren ikerketan inplikatzeko, bere garapen profesionalari laguntzeko eta hezkuntza-berrikuntzak ahalbidetzeko (Elliott, 1991).

Ikuspegi “organikotik” edo “ekologikotik” egindako behaketak dira, eta hiru ardatz dituzte (van Lier, 1997):

1. prozesua garatzen den ingurune fisiko eta emozionala (Ikaskuntza Ingurune Birtuala);
2. egiten diren jarduerak;
3. ekintza horietan ikasleek eta irakasleek duten parte-hartze pertzeptuala, kognitiboa eta afektiboa.

SBLENDIDen lortutako emaitzek gure aurreikuspenak gainditu dituzte. Produktu egiaztagarrietan gauzatu dira, eta, hortaz, horiei hedapena ematen segitzen dugu, estatu-mailako helduentzako irakasleentzat zein beste maila batzuetako erakundeentzat baliagarriak izango direlakoan.

Partekatzen ari garen produktu zehatzei dagokienez, honako hauek daude:

- *#itinerarioSEMI* delakoa osatzen duten irakasleen prestakuntzarako lau ikastaroak;
- parte hartu duten irakasleek sortutako portfolioak (adibidez: <https://view.genial.ly/60f9d6004e7e260ddba5074b/personal-branding-ejemplo-de-portafolio-digital>);
- lehenengo urteko proiektuaren prestakuntza-mintegien baitan sortutako baliabideak (behaketarako errubrika, IKT baliabideen sorta, ikaskuntza-kontratuen ereduak, jardun biko irakaskuntzarako aholkuak, podcastak, web-mintegiak, eskola erdipresentzialeko ereduak, etab.);
- Hizkuntza Eskola Ofizialei buruzko aurkezpenak, zenbait hizkuntzatan (italiera, ingelesa, alemana);
- SBLENDID proiektuari buruzko aurkezpenak;
- ikaskuntza-egonaldiak egiteko bisitatu ditugun 5 herrialdeetako (Italia, Portugal, Austria, Irlanda eta Estonia) alderdi praktikoekin sortu ditugun dokumentuak.

SBLENDID proiektuari eta bertan eskuratutako gaitasun eta ezagutzei esker, jardun bikoaz irakasle gisa aritzeko gai diren HEOetako profesionalak ditugu. Hortaz, gaur egun irakasle eta aholkulari gisa ari dira Galiziako zein gainerako autonomia-erkidegoetako prestakuntza-jardueretan.

Jarrerei dagokienez, jardun biko irakaskuntzari balioa emateko adibide paregabea izan da SBLENDID proiektua, bai Hizkuntza Eskola Ofizialetako irakaskuntza-komunitatearen baitan (irakasleak, ikasleak eta Administrazioa), bai komunitatean oro har. Honetarako bideak, nagusiki, hauek izan dira: egunkarietan argitaratu diren albisteak, CAFiren X. urteurreneko ekitaldia, INNTEd (*Congreso Internacional Innovación y Tendencias Educativas*) kongresuan egindako aurkezpena eta *#itinerarioSEMI*ko ikastaroetan partaide diren beste kidegoetako irakasleak.

Aldi berean, hobera egin du Hizkuntza Eskola Ofizialetako ikasleen pertzepzioak, proiektuaren bukaerako saioan ikusi genuen legez. Horren froga izan ziren A Coruñaeko HEOko jardun biko ereduko ikasleen adierazpenak eta *#itinerarioSEMI* bidez prestakuntza jaso ondoren HEOetan C1 mailako ikasketei berriz ekiteko asmoa dutela esan zuten Lehen Hezkuntzako irakasleak.

Prozedurei dagokienez, oso harro gaude jarraitutako lan-metodologiarekin; kasu honetan, jardun biko izanda, aurrez aurreko eta online formatua, formatu sinkronoa eta asinkronoa eta etengabeko lan kolaboratiboa uztartu baititugu. Taldeak eta azpitaldeak sortu ditugu eta azkar ebazten lagundu diguten lanerako tresnak erabili ditugu, hala nola *Canvas* bezalakoak (diseinu-pentsamendua), dokumentu eta arbel kolaboratiboak, pantaila grabatzeko teknologia, etab.

Laburbilduz, “ikas-ziberkomunitatea” eratu dugu (Murua et al., 2015), 2014ko maiatzeko Europar Batasuneko Kontseiluaren gomendioarekin bat eginez. Horren arabera, irakasleen hasierako prestakuntzak eta garapen profesionalak ikerketa pedagogikoan oinarrituta egon beharko du, eta helduentzako irakaskuntza-metodoak aplikatu beharko dira, irakaskuntza-komunitateetan, online irakaskuntzan eta berdinen arteko irakaskuntzan oinarrituta. Gure ustez, *Erasmus+* proiektuari esker izan dugu ziberkomunitate hau sortzeko aukera, eta hura hedatzea eta mantentzea da partzuergo honen asmoa. Horretarako, estatu-mailan eredu erdipresentziala eskaintzen duten Hizkuntza Eskola Ofizialen sarea sortu nahi dugu.

Ildo horretatik, komunikazio- eta truke-kanalak eskaini nahi ditugu: EPALÉ eta Telegram, hain zuzen. Gonbidaturik daude artikulu honetako irakurleak bertan parte hartzera.

Helduen Heziketan ari diren profesionalentzako erreferentzia-tokia da EPALÉ (*Electronic Platform for Adult Learning in Europe*, Europan helduen ikaskuntzarako plataforma elektronikoa) (<https://epale.ec.europa.eu/es>). Aurretik ezagutzen bagenuen ere, prestakuntzarako eta beste irakasle batzuekin konektatzeko erabili dugu, batez ere 2021eko urtarrilean *I Congreso de Educación de Personas Adultas* kongresuan parte hartu ondoren.

Hala, SBLENDID proiektua martxan jarri genuenean, talde bat sortu genuen EPALÉn (“Blended Learning for Learning Teachers” deritzo), partzuergoari atxikitako irakasleen topagune ez ezik, hizkuntzen irakaskuntza erdipresentzian interesa duten nazioarteko profesionalen artekoa ere izan dadin.

Artikulu hau idaztean, 28 kide ditu taldeak; sartzen diren irakasleentzako zenbait baliabide ere badaude, hala nola:

- proiektuaren infografia eta laburpena taldearen “Dokumentuak” atalean (<https://epale.ec.europa.eu/en/group/169139/documents>);
- bederatzi prestakuntza-ekitaldiri buruzko informazioa, aurrez aurrekoak (go-sari-bazkaria eta amaierako jardunaldia) eta online egingo direnak (Youtube bidezko web-mintegi irekiak eta Webex bidezko hedapen-jardunaldia);
- jardun biko ereduaren erronkei eta aukerei buruzko eztabaida;
- proiektuaren gela birtualari, edukiei eta hura aberasteko ekarpenei buruzko informazioa;
- “Berriak” atalean inpaktu handiko hedapen-jarduerak argitaratzea;
- “Baliabideak” atalean prestakuntza ibilbideko 4 bideo argitaratzea. (<https://epale.ec.europa.eu/en/resource-centre/content/sblendid-training-teachers-b-learning>).

Arestian esan bezala, badaukagu Telegram plataforman gaitasun digitalak garatzeko jardunbide egokiak partekatzeko komunikazio-talde bat. Parte hartu nahi izanez gero, nahikoa da [cafi.internacional@edu.xuntal.gal](mailto:cafi.internacional@edu.xuntal.gal) helbidera mezu bat idaztea, norbere profil profesionala deskribatu eta sarbidea eskatuz.

Itzultzailea: IVAPeko Itzultzaile Zerbitzu Ofiziala

**Bibliografia eta erreferentziak**

- Conclusiones del Consejo de Europa, de 20 de mayo de 2014 (2014/C 183/05), sobre formación eficaz de los docentes. *Diario Oficial de la Unión Europea*, 2014ko ekainaren 14a, 22-25 <https://eur-lex.europa.eu/legal-content/ES/AUTO/?uri=uriserv:OJ.C.2014.183.01.0022.01.SPA&toc=OJ:C:2014:183:TOC>
- CAFI Galicia. (2021, irailaren 21a). *SBLENDID. Enseñanza semipresencial. Presentación*. [Bideoa]. You Tube. <https://youtu.be/4N382HAlmyA>
- Conole, G. (2012) *Designing for learning in an open world*. Springer
- Elliott, J. (1991) *El cambio educativo desde la investigación-acción*. Morata.
- Fendick, F. (1990). *The correlation between teacher clarity of communication and student achievement gain: A meta-analysis*. [Doktore-tesia]. University of Florida. <https://ufdc.ufl.edu/AA00032787/00001/>
- Fernández González, M. D., Pastoriza, D. eta Eizaguirre Santillán, A. (2021). Proyecto SBLENDID. Hacia una comunidad de aprendizaje en el marco de la modalidad semipresencial. In M. C. Romero García & O. Buzón-García (Ed.), *Innovación e investigación docente en educación: Experiencias prácticas* (702-720. or.). Dykinson.
- Murua Anzola, I., Cacheiro González, M. L. eta Gallego Gil, D. (2015). Las cibercomunidades de aprendizaje (cCA) en la formación del profesorado. *Revista de Educación a Distancia (RED)*, 43. <https://revistas.um.es/red/article/view/236801>
- Rickards, F., Hattie, J. eta Reid, C. (2021). *The turning point for the teacher profession. Growing expertise and evaluative thinking*. Routledge
- Van Lier, L. (1997). Observation from an Ecological Perspective. *TESOL Quarterly*, 31(4), 783-787. <https://doi.org/10.2307/3587762>